

**Eibarko immigranteen diagnosia  
- atariko dokumentua-**

<b>AURKIBIDEA</b>	<b>Orr.</b>
<b>1.- AURKEZPENA</b>	<b>(3)</b>
<b>2.- IKUSPEGI METODOLOGIKOA</b>	<b>(4)</b>
<b>2.1.- Diagnostikoa interpretatzeko hainbat zehaztasun</b>	<b>(6)</b>
<b>3.- EIBARKO IMMIGRANTEAK: HURBILKETA KUANTITATIBOA</b>	<b>(7)</b>
<b>3.1.- Immigrazioaren fenomenora sarrera: panoramika labur konparatiboa</b>	<b>(7)</b>
<b>3.2.- Eibarko populazioaren garapena: Immigrazioaren ondorioak</b>	<b>(17)</b>
<b>3.3.- Immigrazioaren alorrak eta nazionalitateak Eibarren: lekualdaketak</b>	<b>(19)</b>
<b>3.4.- Finkapena udalerrian eta immigrazio arauak</b>	<b>(25)</b>
<b>3.5.- Kanpoan jaiotako pertsonak eta atzerritar nazionalizatuak</b>	<b>(31)</b>
<b>3.6.- Biztanle immigrantea sexuaren arabera</b>	<b>(34)</b>
<b>3.7.- Biztanle immigrantea adinaren arabera</b>	<b>(36)</b>
<b>3.8.- Immigrazioaren lokalizazioa</b>	<b>(40)</b>
<b>3.9.- Biztanle immigrantearen hezkuntza maila</b>	<b>(46)</b>
<b>4.- ONDORIOAK</b>	<b>(49)</b>

## 1.- AURKEZPENA

Eibarko Udalak Diagnostikoa eta Immigrazio Plana burutu du etorkin atzerritarren<sup>1</sup> integrazio soziala babesteko helburuarekin. Ekintza hau Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak babestutako bitartekotzan (EAEko migrazio-errealitateari aurre egiteko tokian tokiko administrazioen ekintzak bultzatzera zuzendutakoa) kokatua dago.

Dokumentu honek **Eibarko immigrazio atzerritarren Diagnostikoaren** emaitza nagusiak jasotzen ditu. Bere helburu nagusia Immigrazio Plan Lokalaren oinarria izatea da; izan ere, Plan horrek hainbat proposamen egituratzen ditu ikerketaren fase honetan identifikatutako beharretatik abiatuta.

Ikerketaren emaitzak biltzen dituzten **oinarrizko lau punturen** inguruan eratua dago:

- **Ikuspuntu kuantitatiboa, Erroldaren** datuetatik aterata (baita Zentsuan ere, hala dagokionean). Eibarko immigrazioaren tamaina zehazteko balio du hainbat ezaugarri (nazionalitatea, adina, sexua, asentatze-jarraibideak, hezkuntza-maila...) eta bere eboluzioa identifikatuz.
- **Diagnostiko** bat (puntu kritiko eta puntu indartsu nagusiak), Eibarko immigrante atzerritarrek **oinarrizko eremuetan** bizi duten egoeraren ingurukoa: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, parte hartze soziala... Diagnosi hauek estatistika erregistroen datuen (egon badaudenean edo eskura daudenean), eta aktore nagusien balorazioen bitartez egiten dira.
- **Immigranteek eurek emandako immigrazioaren ikuspuntua**; bertan jasotzen dira migrazio-prozesuen hainbat alderdi eta aurkitutako zailtasun nagusien inguruko balorazioak; baita administrazioak eskainitako zerbitzuen edo bertako biztanleekin duten harremanaren inguruko iritzia ere.
- **Gizarte hartzailearen balorazioa**, Eibarko bizilagunei egindako inkesta baten bitartez lortutakoa. Bertan immigrazioarekin lotutako hainbat iritzi jasotzen dira.

Puntu horiei ikerketaren **metodologiaren** aurkezpen txiki bat gehitu zaie, eta dokumentua emaitza esanguratsuenen **laburpenarekin** ixten da.

---

<sup>1</sup> Europako Batasuneko edo Europako Ereku Ekonomikoko nazionalak izan ezik

## 2.- IKUSPEGI METODOLOGIKOA

Diagnostikoaren ikuspegi metodologikoa bere helburu nagusiaren menpekoa da: udal mailako ekintza plan bat egitea ahalbidetzen duen informazioa lortu, immigrazio atzerritarraren integrazioaren alde egiteko.

Helburu horrekin, jaso eta aztertutako informazioaren bitartez honako alor hauek bete ditugu:

- Eibarko **populazio immigrantearen ezaugarriak eta egoera**. Horretarako datu estatistikoak bildu eta aztertu dira, era horretako erregistroak dauden kasuetan, eta immigranteen balorazioa ere jaso da; eurek identifikatu dituzte gabezia eta zailtasun nagusiak eta integrazioaren alor desberdinak baloratu dituzte.
- **Administrazioaren jokaera** maila ezberdinetan, eta bereziki udal eremuan, eta immigranteen eta biztanle autoktonoen arteko desberdintasun eta berdintasun potentzialak (administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetara sarbideari, ezaugarri desberdineko biztanleriari heltzeko baliabideei edo identifikatutako zailtasun espezifikoei dagokienez).
- **Gizarte hartzailearen erantzuna**: immigrante eta biztanle autoktonoen arteko elkarbizitza maila identifikatzeko, zailtasun posibleak igartzeko, immigrazioaren inguruko bere diagnostikoa jasotzeko...
- **Organizatutako kolektiboen** ekintza eta bere jarrera immigrazioaren aurrean, bereziki GKEen, sindikatuen, alderdi politikoen... jarrera. Oso kasu espezializatuetan immigrazioaren ikuspegia eskaini dezakete, eta era berean, Planaren garapenerako funtsezko aktoreak dira.

Informazio-behar hauek tresna analitiko, etorkizuneko tresna eta diagnostikoko tresnekin estali dira eta horiek osatu dute Diagnostikoaren alderdi kuantitatiboa eta kualitatiboa honako hau eginez:

- **Dokumentuen eta estatistika erregistroen analisia**: Errolda, Gizarte Zerbitzuen estatistikak, INEM, Osasuna, Etxebizitza, Hezkuntza, MTAS, INE, EAEko udalerrien beste diagnosi-txosten batzuk.
- Eibarko **200 biztanleri egindako inkesta**, sexua eta adin taldeen arabera proportzionalki banatuak, gehienez jota +/- %7ko lagin-akatsarekin eta %95,5eko konfidantza tartearekin.
- Lau **Tailer Sektorial**, Hezkuntza, Formazioa eta Enplegua, Harrera eta Gizarte Zerbitzuak eta Partehartze Soziala alorretan zentratuak. Tailer horietan parte hartu dute horien garapenean inplikatu diren entitateen arduradunek, hala nola, instituzioak eta kolektibo organizatuak (hezkuntza zentroak, organizazio sindikalak eta enpresa-organizazioak, udal zerbitzuetako arduradunak, ONGak, kultur eta aisialdi elkarteak, euskara elkarteak, etb).

- Hainbat aktoreri **elkarrizketak**, udal, lurralde eta autonomi mailakoak, besteak beste honako alor hauetan: zuzenbide-zerbitzuak, Osasuna, Emakumea, Hezkuntza, Gobernu Delegazio ordea, immigrazio adituak, etb.
- **Bi eztabaida talde (20 parte hartzaile) eta 14 elkarrizketa etorkinei.** Populazio immigrantea ez denez kolektibo homogenea, kolektiboaren inguruko informazio adierazgarria lortzeko sintesirako esfortzua egin da. Parte hartzaileak aukeratzeko honako irizpide hauek hartu dira kontutan: nazionalitatea, sexua eta etorritako data, eta ezaugarri horiek Udal Erroldan<sup>2</sup> daudenetara egokitu dira.

### Partehartzeen laburpen orokorra

Kolektiboa	Tresna	Informazioa	Partehartzaileak
<b>Immigranteak</b>	Elkarrizketak eta Eztabaida Taldeak	Beharren karakterizazioa. Zerbitzuen eta bertako biztanleekiko harremanen balorazioa	34
<b>Aktoreak –area eta zerbitzu arduradunak</b>	Elkarrizketak eta Tailer Sektorialak	Alor bakoitzean immigrazioaren egoeraren puntu kritikoak eta indartsuak	20 (+17) 35
<b>Bertako biztanleak</b>	Inkesta	Immigrazioari buruzko iritzia	200
<b>Antolatutako elkarteak</b>	Elkarrizketak eta galdetegiak	Immigrazioarekiko jarrera. Egoera eta behar nagusiak	8

<sup>2</sup> Taldeetan eta elkarrizketetan parte hartu duten pertsonak Kolonbia, Ekuador, Argentina, Brasil, Dominikar Errepublika, Bolivia eta Marokokoak izan dira. Horrez gain beste bi elkarrizketa sakon egin dira Maroko eta Ekuadorreko bi pertsonekin; pertsona horiek hainbat urte daramatzate herrian bizi izaten eta Eibarko komunitate marokoar eta latinoamerikarrekin harreman estua dute.

## 2.1.- Diagnostika interpretatzeko hainbat zehaztasun

Dokumentuan zehar batzuetan populazio **immigrante** deitzen zaio Diagnostika egiteko hartutako biztanlegoari. Termino hori ematen diegu **nazionalitate atzerritarra**<sup>3</sup> duten pertsoneri (Eibarren erroldatuta daudenak).

Kolektibo horren barruan, arrera berezia egin diogu komunitatez kanpoko atzerritarren analisiari, tratamendu administratibo ezberdina dutelako, eta bereziki, garapen maila baxuagoa duten edo krisi ekonomiko larriak bizi izan dituzten zonaldeetatik datozen pertsoneri.

Hain zuzen ere, ikerketa integratzaileko zailtasun gehiago duten pertsonetan, egoera ekonomiko larria dutenetan, ezberdintasun kultural handiak dituztenetan, etb. zentratu dugu. Hala ere, argi dago nazionalitateak ez dituela modu taxatiboan definitzen, integratzailean babes espezifikoa behar dutenen eta zailtasunik gabe ingurura egokitzen direnen arteko mugak.

Dena dela, baliabideen planifikazioaren eta administrazioaren ekintzen ikuspegitik begiratuta, aldeztu aurretik hainbat tipologia edo oinarrizko profil ezarri daitezke, hain zuzen ere, muga batzuen barruan beharrak balioztatu, zailtasun espezifikokoak identifikatu eta beharrezko baliabideak erraztuko dituzten profilak.

Bestalde, **Erroldaren** identifikazioak, informazio estatistikoaren oinarrizko iturri bezala, baditu bere ezaugarriak: herrira heldu eta Erroldatzearen artean pasa den denborak, erroldatzeko zailtasunak (etxebizitza edo erregistroen aktualizazio faltarekin lotutako zailtasunak –irteeren notifikazio falta-) eragiten dute besteak beste, Erroldako datuak herrian bizi diren atzerritarrekin bat ez etortzea (zeinu kontrajarrikoak). Atzerritartasunari buruz egin diren ikerketan aspaldi identifikatutako arazoa bada ere, herrian bizi diren immigranteen inguruko adierazle fidagarriena dela uste da.

---

<sup>3</sup> Atzerriko nazionalitatea duten bizilagunen eta atzerrian jaiotako bizilagunen artean dagoen ezberdintasunari ere erreferentzia egin zaio: immigrazioa herrian finkatzen dihoan heinean, nazionalizazio prozesuak gertatzen dira eta erregistroetan ikusezin bihurtzen dituzte pertsona horiek, baina horren ikerketa interesgarria ere bada immigrazioaren faseen eboluzioa ezagutu ahal izateko (bigarren eta hirugarren generazioak).

### **3.- EIBARKO IMMIGRANTEAK: HURBILKETA KUANTITATIBOA**

Epigrafe honetan Eibarren bizi den biztanlego atzerritarraren analisi kuantitatiboa egiten da, biztanlego horren oinarrizko hainbat ezaugarri identifikatuz, eta era berean, pertsona horiek Eibarko bizilagunen demografia tendentzietan zein eragin izan ditzaketan ere ikus daiteke.

Informazio iturri nagusia Udal Errolda da, kasu batzuetan, noizbehinka egiten diren Populazio eta Etxebizitza Erroldekin osatua. Beste area geografikoekin alderatuz (Estatua, EAE, Lurraldea...) iturriak desberdinak dira, eta identifikatuak daude.

Erroldaren hainbat hutsune ezarri badira ere, analisisia Erroldak emandako informazioan oinarritu da, izan ere, bizilagun immigranteen zati handi baten irregulartasun administratiboa dela eta, beste erregistro batzuegatik at uzten du.

Diagnosian immigrazioaren inguruko ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatzeko ahalegina egin da: erregistro estatistikoek kolektiboaren inguruan informazio mugatua badute ere –eta batzuetan ez oso zuzena-, immigrazioaren fenomenoaren udalerrian kokatzea ahalbidetzen dute, estrategien eta inplementatuko diren ekintzen dimentsionaketa errazteko, eta bide batez, etorkizun hurbilean bere garapena zein izango den kalkulatu<sup>4</sup>.

---

<sup>4</sup> Immigranteen etorreran eragina duten faktoreak asko dira eta etorkizunean izango duen eboluzioa kalkulatzeko, ikerketa honen helburu eta bitartekoetatik kanpo gelditzen da.

### 3.1.- Immigrazioaren fenomenora sarrera: panoramika labur konparatiboa

Pertsona immigranteen etorrera Eibarrera, Estatuan eta EAEn gertatzen diren migrazio-lekualdatze orokorrenen testuinguruan kokatu behar da. Nahiz eta bere ezaugarriak dituen, ez da gertatzen modu isolatuan, eta beraz, beste leku batzuetako immigrazioaren panoramikak, fenomeno hau udalerrri mailan testuingururatzeko baliagarria da.

Datozen apunteak Udal Erroldetatik jasotako informazioan oinarritzen dira batik bat. Bigarren maila batean, erregularizatutako immigrazioari erreferentzia egiten zaio: bi erregistroen zifren arteko diferentziek erakusten dute, zein eragin duen integratzeko orduan pertsona horiek aurre egin behar izaten dioten arazo nagusiak: irregulartasun administratiboa.

2003. urtean, Europako Batasunak 1,68 milioi pertsona hartu zituen, eta **Espainia izan zen atzerritar gehien jasotzen dituen herrialdea, immigrazio totalaren %36 inguru** (Italiak, Alemaniak eta Erresuma Batuak ere mugimendu handia jasan zuten). Horrek esan nahi du Europako Batasunean azken hamarkadetan asko aldatu dela migrazio-fluxua eta Estatu harrera-herrialdea bihurtu du.


Immigrazioaren ondorioz Estatuak jasan du **Europako Batasuneko populazio hazkunderik handiena**; 2003an bertan bizi ziren 647.300 pertsona berrietatik %92 erregistratutako migrazio-saldoari dagokio.

#### Populazio osoa, migrazio-saldoa eta EBko herrialdetan izandako hazkundera

	Populazioa 2004ko urtarrilaren lean (milioika)	Migrazio- saldoa (milaka)	Hazkunde osoa 2003- 2004 (milaka)
Espainia	<b>42,197</b>	<b>594,3</b>	<b>647,3</b>
Italia	57,804	511,2	483,0
Frantzia	59,900	55,0	265,7
Erresuma Batua	59,515	103,0	186,8
Portugal	10,474	63,5	67,4
Holanda	16,254	2,8	62,4
Irlanda	4,024	28,3	61,0
Belgika	10,396	35,2	40,2
Suedia	8,975	28,7	34,9
Grezia	11,041	35,0	34,7
Austria	8,114	32,3	32,0
Txipre	0,730	12,9	15,5
Danimarka	5,397	7,0	14,1
Finlandia	5,219	5,8	13,4
Txekiar Errep.	10,211	25,8	8,2
Luxenburgo	0,451	2,1	3,3
Malta	0,399	1,7	2,6
Alemania	82,538	144,9	1,9
Eslovenia	1,996	3,4	1,4
Eslovakia	5,380	1,4	0,9
Estonia	1,350	-0,4	-5,4
Letonia	2,319	-0,8	-12,3
Lituania	3,445	-6,3	-16,7
Hungaria	10,116	15,5	-25,6
Polonia	38,190	-13,8	-27,9

2003ko urtarrilaren 1eko Erroldako datuetan, **Espanian erroldatutako atzerritar kopurua 2.664.168 zen. 1998 eta 2003 urte bitartean atzerritar kopurua laukoiztu egiten da, eta beraz, 1998an atzerritar kopurua populazioaren %1,6 baldin bazen, bosturteko amaieran %6,2ra iristen zen.**

### Espaniako atzerritarren eboluzioa




*Iturria: INE*

**Ertamerika eta Hegoamerikatik etorritako pertsonak dira atzerritar kopuru osoaren gehiengoa (%38,7); atzetik daude europar komunitarioak (%22,1) eta afrikarrak (%19,6). %13,1 komunitarioak ez diren Europako herrialdeetakoak dira, %4,8 Asiakoak eta %1,5 gehigarria Ipar Amerikakoa.**

**Aurreko urteko (2002-2003) garapenari dagokionez, europar ez komunitarioek dute portzentaiazko hazkunderik handiena (%65), atzetik daude ertamerikarrak eta hegoamerikarrak (%43) eta asiarrak (%30,3). Orotara, latinamerikarren etorrera hazkunde osoaren ia erdia izan da.**

## Atzerritarren banaketa nazionalitatearen arabera



Iturria: INE

**Bertako nazionalitate nagusiak ekuadortarra eta marokoa dira, baita kolonbiarra ere.** Ekuador eta Marokoko pertsona kopurua atzerritar kopuru osoaren %29ra ailegaten da.

## Estatuko atzerritarren nazionalitate nagusiak

	<u>Atzerritarrak orotara</u>	<u>Osoaren %</u>
Ekuador	390.297	14,6
Maroko	378.979	14,2
Kolonbia	244.684	9,2
Erresuma Batua	161.507	6,1
Errumania	137.347	5,2
Alemania	130.232	4,9
Argentina	109.445	4,1
Frantzia	69.930	2,6
Italia	65.396	2,5
Portugal	56.672	2,1
Peru	55.915	2,1
Bulgaria	52.838	2,0
Txina	51.228	1,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.664.168</b>	<b>100</b>

Iturria: INE, 2003ko urtarrilaren 1

Atzerritar gehien hartzen dituzten autonomi erkidegoak honako hauek dira: **Madril** (totalaren %22,1), **Katalunia** (%20,4) eta **Andaluzia** (%10,6). **EAEk Estatuko atzerritar kopuru osoaren %1,8 hartzen du.**

Autonomi Erkidego bakoitzeko bizilagun kopuru osoarengan atzerritarren pisua zein den kontuan izanik, **Balear Irlak** nabarmentzen dira –bizilagunen %13,4 atzerritarra da bertan- eta **Madril** –hamar pertsonatik bat atzerritarra da-. Horien atzetik eta bigarren maila batean daude Kanariar Irlak (%9,5), Melilla (%9,3), Valentzia (%9,3) eta Murtzia (%9).

### Populazio osoa eta populazio atzerritarra Autonomi Erkidegoetan. Atzerritarren portzentaia

	Populazio osoa	Atzerritar ak orotara	% bertikala atzerritarra k	% atzerritarra k populazio0 osoarengan
Andaluzia	7.606.848	282.901	10,6	3,7
Aragoi	1.230.090	61.896	2,3	5,0
Asturias	1.075.381	19.691	0,7	1,8
Balear Irlak	947.361	126.505	4,7	13,4
Kanariak	1.894.868	179.493	6,7	9,5
Kantabria	549.690	13.677	0,5	2,5
Gaztela eta Leon	2.487.646	59.440	2,2	2,4
Gaztela-Mantxa	1.815.781	70.899	2,7	3,9
Katalunia	6.704.146	543.008	20,4	8,1
Valentzia	4.470.885	413.760	15,5	9,3
Extremadura	1.073.904	17.885	0,7	1,7
Galizia	2.751.094	53.808	2,0	2,0
Madril	5.718.942	589.215	22,1	10,3
Murtzia	1.269.230	113.912	4,3	9,0
Nafarroa	578.210	38.741	1,5	6,7
<b>Euskadi</b>	<b>2.112.204</b>	<b>49.231</b>	<b>1,8</b>	<b>2,3</b>
Errioxa	287.390	20.570	0,8	7,2
Ceuta	74.931	3.203	0,1	4,3
Melilla	68.463	6.333	0,2	9,3
<b>Guztira</b>	<b>42.717.064</b>	<b>2.664.168</b>	<b>100,0</b>	<b>6,2</b>

*Iturria: INE*

Espanian bizi diren gizon atzerritarren kopurua emakumeena baino altuagoa bada ere – portzentaiazko hiru puntuko alde- **sexuen arteko distribuzioa neurri handi batean jatorriaren arabera aldatzen da.** Horrela, peruar (%57,3) eta kolonbiarren (%57,1) artean emakumeen kopurua nabarmentzen da –ekudortarren artean %50etik gorakoa da-, aldiz, marokoarren artean %67,4 gizonezkoak dira.

## Egoera administratibo erregularra

**Euskal Autonomi Erkidegoan Estatu osoko erresidentzia baimena duten atzerritar kopuru osoaren %1,9 biltzen da**, hau da, irregulartasun egoera Autonomi Erkidegoen proportzioaren oso antzerakoa da. 1994. urtetik EAEn baimen hori zuten atzerritarren bolumena etengabe hazi da, nahiz eta Estatuan baino motelago: 1986 eta 1996 urte bitartean Estatuko atzerritar kopurua %83,8 hazi zen, eta aldiz 1996 eta 2002 urte bitartean hazkundera %145,6koa izan zen; EAE mailan hazkundera %71,1 eta %84,2koa izan da.

## Erresidentzia baimena duten atzerritarren eboluzioa EAEn eta Estatuan

	Estaturia	EAE	% EAE/Estaturia
1986	293.208	7.675	2,6
1988	360.032	10.714	3
1990	407.647	13.169	3,2
1992	393.100	10.935	2,8
1994	461.364	12.262	2,7
1996	538.984	13.135	2,4
1998	719.647	16.995	2,4
2000	895.720	18.822	2,1
2002	1.324.001	24.201	1,9

*Iturria: Herrizaingo Saila. Atzerritartasun Estatistika Urtekaria 2002*

Euskadin **Europako Batasunetik etorritako pertsona kopurua proportzionalki altuagoa da.**

## EAE-Estatua arteko konparazioa: Erresidentzia baimena duten atzerritarren kopuruaren eboluzioa erresidentzia erregimenaren arabera (EAE 1999-2002)

	1999 (*)				2002 (**)				Igoera			
	EAE		Estaturia		EAE		Estaturia		EAE		Estaturia	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Guztira	18.622	100	801.329	100	24.201	100	1.324.001	100	5.579	29	522.672	65
Komunitate-erregimena	8.250	44,3	312.518	39	11.989	49,53	497.045	37,5	3.739	45,32	184.527	59
Erregimen orokorra	10.372	55,7	488.811	61	12.212	51,47	826.956	62,5	1.840	17,75	338.145	69

*Iturria: (\*) EGAILAN*

*(\*\*) Herrizaingo saila. Atzerritartasun Estatistika Urtekaria 2002*

2002. urtean, **EAEn erresidentzia baimena zuten hamar atzerritarretatik hiru Europako Batasuneko herrialde batekoak ziren.** Era berean, %35,4 Ertamerika eta Hegoamerikakoa zen eta %20,2 Afrikakoa. Azken urteetan (1999-2002), **Europako Eremu Ekonomikotik etorritako pertsona kopuruak behera egin badu ere,** Latinoamerika eta Afrikako herritar (azken hauek bigarren lekuan) kopuruak gora egin du nabarmen.

### EAEn bizi diren atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera (1999-2002)

	1999 (*)		2002 (**)	
	Abs.	%	Abs.	%
Europako Eremu ekonomikoa	8.249	44,3	7.092	29,3
Gainontzeko Europa	1.043	5,6	1.440	6,0
Ertamerika eta Hegoamerika	4.060	21,8	8.552	35,4
Gainontzeko Amerika	801	4,3	519	2,1
Áfrika	3.147	16,9	4.883	20,2
Asia	1.248	6,7	1.648	6,8
Ozeania	74	0,4	55	0,2
Guztira	18.622	100,0	24.201	100,0

Iturria(\*): EGAILAN

(\*\*) Herrizango saila. Atzerritartasun Estatistika Urtekaria 2002

Estatuan ere gora egiten du nabarmen latinoamerikarren kopuruak eta Europako Eremu Ekonomikoko bizilagunen kopurua txikiagoa da.

### EAEn bizi diren atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera (1999-2002)

	EAE		Estatua	
	1999 (*)	2002 (**)	1999 (*)	2002 (**)
Guztira	18.622	24.201	801.329	1.324.001
Europako Eremu ekonomikoa	44,3	34,5	38,9	27,1
Gainontzeko Europa	5,6	5,3	6,2	8,6
Ertamerika eta Hegoamerika	21,8	32,7	17,8	29,3
Gainontzeko Amerika	4,3	2,3	2,2	1,2
Áfrika	16,9	18,2	26,4	26,0
Asia	6,7	6,7	8,3	7,7
Ozeania	0,4	0,3	0,1	0,1
Aberriabeak	0	0	0,1	0


Iturria(\*): EGAILAN

(\*\*) Herrizango saila. Atzerritartasun Estatistika Urtekaria 2002

Lurralde Historikoei dagokienez, **Bizkaian biltzen da atzerritar gehien -%48,6-, eta Gipuzkoan (%27,6) eta Araban (%23,7) immigrante kopurua baxuagoa da.**

**Gipuzkoako komunitatez kanpoko bizilagunen erdia baino gehiago iberoamerikarrak** dira (%51,6) afrikarrek batera (%26,4); herrialde horietakoak dira komunitatez kanpoko lau pertsonetatik hiru. %6,7 Asiakoak dira.

**Komunitatez kanpoko bizilagunen banaketa Gipuzkoan eta EAE osoan nazionalitate gunearen arabera**



Iturria: EGAILAN  
Herrizango saila. Atzerritartasun Estatistika Urtekaria 2002

Hala ere, **Gipuzkoan gehien dagoen nazionalitatea marokarra** da (673 pertsona), atzetik **ekuatorrekoa** (411) eta **kolonbiarra** (392 pertsona) daude. Era berean, Kubako, Dominikar Errepublikako, Argentinako, Brasilgo edo eta Txinakoak ehundik gora dira.

Estatuan bezala, **Euskal Autonomi Erkidegoan** atzerritarren artean gizonezko eta emakumezkoen presentzia jatorriaren arabera da neurri handi batean; **horrela iberoamerikarren artean lautik hiru emakumeak dira, eta aldiz, afrikarren %56 inguru gizonak** dira. Komunitate kanpoko europarren artean gehiengoa emakumeak dira (%68,3).

Gipuzkoan atzerritarren artean gizonezkoen eta emakumeen banaketa Euskal Autonomi Erkidego osokoaren parekoa da, alegia, nabarmena da emakume iberoamerikarren eta gizonezko afrikarren presentzia.

**EAE bizi diren emakume atzerritarren portzentaia Lurralde Historikoaren arabera**

	Guztira	Europako Eremu Ekonomikoa	Gainontzeko Europa	Afrika	Iberoamerika	Ipar Amerika	Asia	Ozeania
CAPV	50,4	40,5	68,3	44,2	75,1	48,3	56,5	41,3
Álava	45,7	35	72,7	35	77,4	36	55,6	50
Gipuzkoa	51,1	43,7	65,6	49,8	74,5	51,9	63,8	50
Bizkaia	51,6	40,1	68,9	44,1	74,8	48,8	53,7	37,5

Iturria: EGAILAN eta Herrizaingo saila, Atzerritartasun Urtekariak.

**EAEko atzerritar gehienak 25 eta 44 urte bitartekoak dira (%57,7), beraz, batz besteko adina 32 urtekoa da. 45 urtetik gorakoak %16,1 dira eta 24tik beherakoak %26,2. EAEn 24 urtetik beherakoak atzerritarrak baino apur bat gutxiago badira ere -%25,8-, 45 urtetik gorakoen segmentua askoz ere altuagoa da (%41,6).**


### EAEn bizi diren atzerritarrak adina eta Lurralde Historikoen arabera

	<16	16-24	25-44	45-64	>64
EAE	10,4	15,8	57,7	13,7	2,4
Áraba	9,0	11,7	50,5	21,4	7,3
Gipuzkoa	10,4	13,5	55,4	15,3	5,5
Bizkaia	10,0	13,5	54,6	16,6	5,3

*Iturria: EGAILAN. Herrizaingo saila, Atzerritartasun Urtekariak*

Bizilagunen egitura orokorrarekin egindako konparazio horretan nabarmentzekoa da 64 urtetik gorakoekiko diferentzia, 10 puntu baxuagoa atzerritarren artean.

### EAEko eta Lurralde bakoitzeko populazioa adinaren arabera 2001



*Iturria: Eustat*


Eremu honetan **Eibarko biztanlego atzerritarra honako honengatik bereizten da:**

- **Atzerritarren antzerako presentzia, zertxobait baxuagoa, EAEko biztanlegoarekin alderatuz (2002ko datuak).** Immigranteen etorrera **Estatukoa baino askoz ere baxuagoa** da (2,4 aldiz baxuagoa).
- Jatorrizko **nazionalitateen kontzentrazio handiagoa**, batez ere Afrikatik etorritako pertsonen presentzia altuagoa; Eibarren kasuan batik bat **marokoarrak** ia guztiak, eta aldiz, beste kolektibo batzuen oso presentzia txikia (Asia, Europa ez komunitarioa, Ozeania edo Ipar Amerika). Azken urteetan **Ertamerikatik eta Hegoamerikatik** iritsitako pertsona kopuruak izan duen gorakada handiaren eraginez, herrialde horiek osatzen dute (batez ere Kolonia, Ekuador eta Argentina) herriko immigrazioaren jatorriaren zatirik handiena, Gipuzkoa eta EAEko portzentaiaetara hurbilduz.
- Estatuko datuekin alderatuz, Eibarren nazionalitaterik nagusiena (Gipuzkoan gertatzen den moduan) marokoarra da, ez ekuadorrekoa (Espainian Ekuadorrek Maroko gainditzen du hamar mila pertsona baino gehiagoko aldearekin), eta Kolonbiak Ekuadorrek baino bizilagun gehiago ditu (Estatu osoarekiko alderantziz proportzionala).

### 3.2.- Eibarko populazioaren eboluzioa: immigrazioaren ondorioak

Eibarko populazioaren eboluzioa XX. mendean eta XXI. mende hasieran honako grafiko honetan isladatzen da: gehiengora iristen da 80. hamarkadako bigarren zatian, 50. hamarkadako igoera indartsuaren ondoren, eta data horietatik aurrera **etengabe jaisten** hasten da 2004. urtean, 1976an herrian bizi zen populazioaren %25 baino gehiago galdu arte.


#### Eibarko populazioaren eboluzioa



Iturria: INE

Denboraldiko aldaketa nagusien zergatiak ezagutzen direnez (gerra, industria garapena...), interesgarria da azken hamarkadetako eboluzioa aztertzea. 70. hamarkada hasieratik migrazio-saldoa herrian negatibo izatera pasa zen: emigrazioak immigrazioa gainditzen du, eta jaiotze kopurua gogor jaisten da, 1976. urtean izandako 632 jaiotzetatik 87 jaiotzetara jaitsi zen 1996. urtean (2001ean kopuru hori zertxobait errekuiperatzen da, baina aurreko kopuruetara iritsi gabe). Bestalde, 90. hamarkadan heriotzak jaiotzak baino gehiago dira; 2001ean jaiotzak heriotzen erdia baino apurtxo bat gehiago dira.

#### Eibarko populazioaren mugimendua (1961-2001)



Iturria: INE


Populazioaren pixkanakako jaitsiera honetan, **atzerriko immigrazioak**, momentuz behintzat, **populazioaren jaitsiera murrizten du**, baina eragin erlatiboa du eta ez du aldarazten bere

zeinu negatiboa. 2001ean, populazio atzerritarren kopurua herrira heldutako immigrazio osoaren %10 ingurukoa izan zen, eta mugimendu hau populazioaren irteerak baino baxuagoa izan zen: urte horretan Eibarrera bizitzera etorritako pertsona kopurua herritik irten zirenen %70 bakarrik izan zen. Nahiz eta daturik berrienak ez izan, 2001. urtetik aurrera izandako etorreren igoera kontuan izanik ere, 2001ean izandako emigrazio kopuruari eutsiz gero, migrazio-saldoa hazkunde nulutik gertu geratuko litzateke.

### 3.3.- Immigrazioaren alorrak eta nazionalitateak udalerrian: fluxuetan aldaketak

Eibarren dagoen nazionalitate atzerritarreko<sup>5</sup> populazioaren eboluzioaren analisisan, aztertutako epean populazio horren etengabeko hazkundera ikus daiteke. Kontuan izanik, 2004. urteari dagokien datuek aurtengo ekaineko datuez dihardutela, azken hilabeteetan hazkundera asko azkartu dela ikusten da.


#### Nazionalitate atzerritarreko populazioaren eboluzioa Eibarren<sup>6</sup>



Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)

Ondoko grafikoak jasotzen du azken urteotan nazionalitate atzerritarra duten pertsona kopuruak izan duen aldaketa, kontinenteen arabera taldekatuak. Ikusten den moduan, 2001etik aurrera immigrazioaren hazkundera gogorra gertatzen da. Kontinentei dagokienez, Amerikatik datorrenak jasaten du igoerarik nabarmenena, eta aldiz Asia eta Ozeanitik datozenak oso gutxi dira.

#### Eibarren bizi diren atzerritarren banaketa, jatorrizko Kontinentearen arabera




Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)

<sup>5</sup> Kontuan izan behar da nazionalitate atzerritarra dutenen kopuruaz ari garela une jakin batean. Zenbait kasutan, herrian denbora dezente bizitzen dauden atzerritarrek lortzen dute nazionalitatea, eta beraz analisi honetan ez dira sartzen. Bestalde, badaude herrian, EAEn edo Estatuan jaio eta nazionalitate atzerritarra duten pertsonak.

<sup>6</sup> Iturria INE. 2001ean datu hauek eta ERROLDAKOen artean desadostasuna egon zen, nahiz eta ez izan diferentzia nabarmena. 2004ri dagokien datuak aurtengo ekainekoak dira (iturria, Udal Errolda).


Immigrazioaren konposizioaren aldaketa horiek, kontinente eta nazionalitate gune mailan, errazago antzeman daitezke honako grafiko hauen bidez:

### Immigranteen banaketa Eibarren



Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)


### Eibarren bizi diren atzerritarren jatorria nazionalitate guneen arabera. 2001-2004



Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)

Kontinenteetan gertatzen den populazioaren portaera honek **hainbat herrialde**tako bizilagunek jasandako aldaketei erantzuten die. Guztira, Eibarren gaur egun 43 herrialdeetatik etorritako pertsonak bizi dira, eta herrian bizi diren **hiru atzerritatik bi** immigrazio gehien duten **best herrialde**takoak dira.

## Eibarren bizi diren atzerritarren nazionalitate nagusiak (%)



Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)

Hau da, Eibarko immigrazioaren jatorrizko herrialde nagusia **Maroko** da: herrialde horretako pertsonak Eibarko immigrazio osoaren %36 dira. **Kolonbia** dago bigarren postuan, totalaren %10a gaindituz. Atzetik daude **Portugal** (%7,5), **Ekuador** (%6,3) eta **Argentina** (%6,1). Afrikatik etorritako immigrazioaren %96 Marokokoa da, latinoamerikarren artean antzematen da jatorri ezberdintasun nabarmenena, eta herriko bizilagunen jatorrizko hamabost herrialdeetatik zazpi dute 20 nazionalitate baino gehiago Eibarren bizitzen.

## Eibarren bizi diren atzerritarren nazionalitate nagusiak. 2001 eta 2004

Nazionalitatea/ Jatorria	2001		2004		Bariazioa 2001-2004		
	Zenbakia	Totalaren gaineko %	Zenbakia	Totalaren gaineko %	Hazkundera %	Totalaren gaineko %	% Bariazioa
Argeria	5	1,21	5	0,67	0,00	0	0,00
Maroko	183	44,42	273	36,45	49,18	90	26,71
<b>Magreb</b>	<b>188</b>	<b>45,63</b>	<b>278</b>	<b>37,12</b>	<b>47,87</b>	<b>90</b>	<b>26,71</b>
Cabo Verde	3	0,73	3	0,40	0,00	0	0,00
Egipto	1	0,24	1	0,13	0,00	0	0,00
Angola			1	0,13		1	0,30
Maurizio Irlak			1	0,13		1	0,30
Malawi			1	0,13		1	0,30
<b>Gainontzeko Afrika</b>	<b>4</b>	<b>0,97</b>	<b>7</b>	<b>0,93</b>	<b>75,00</b>	<b>3</b>	<b>0,89</b>
<b>GUZTIRA AFRICA</b>	<b>192</b>	<b>46,6</b>	<b>285</b>	<b>38,05</b>	<b>48,44</b>	<b>93</b>	<b>27,60</b>
Argentina	4	0,97	46	6,14	1050,00	42	12,46
Bolivia	5	1,21	26	3,47	420,00	21	6,23
Brasil	26	6,31	41	5,47	57,69	15	4,45
Txile	1	0,24	2	0,27	100,00	1	0,30
Kolonbia	42	10,19	82	10,95	95,24	40	11,87
Cuba	8	1,94	19	2,54	137,50	11	3,26
Ekuador	3	0,73	47	6,28	1466,67	44	13,06
El Salvador			1	0,13		1	0,30
Mexiko	2	0,49	4	0,53	100,00	2	0,59
Nikaragua	1	0,24	1	0,13		0	0,00
Panama	1	0,24		0,00	-100,00	-1	-0,30
Paraguai			2	0,27		2	0,59
Perú	1	0,24	5	0,67	400,00	4	1,19
Dominikar Errepublika	12	2,91	21	2,80	75,00	9	2,67
Uruguai			5	0,67		5	1,48
Venezuela	14	3,40	19	2,54	35,71	5	1,48
<b>Latinoamerika</b>	<b>120</b>	<b>29,13</b>	<b>321</b>	<b>42,86</b>	<b>167,50</b>	<b>201</b>	<b>59,64</b>
<b>Ameriketako Estatu</b>							
<b>Batuak</b>	<b>2</b>	<b>0,49</b>	<b>3</b>	<b>0,40</b>	<b>50,00</b>	<b>1</b>	<b>0,30</b>
<b>GUZTIRA AMERIKA</b>	<b>122</b>	<b>29,62</b>	<b>324</b>	<b>43,26</b>	<b>165,57</b>	<b>202</b>	<b>59,94</b>
Txina	9	2,18	16	2,14	77,78	7	2,08
Filipinak	2	0,49			-100,00	-2	-0,59
Tailandia	1	0,24			-100,00	-1	-0,30
Malasya			3	0,40		3	0,89
<b>GUZTIRA ASIA</b>	<b>12</b>		<b>19</b>	<b>2,54</b>	<b>58,33</b>	<b>7</b>	<b>2,08</b>
Australia	5	1,21	5	0,67	0,00	0	0,00
<b>GUZTIRA OZEANIA</b>	<b>5</b>	<b>1,21</b>	<b>5</b>	<b>0,67</b>	<b>0,00</b>	<b>0</b>	<b>0,00</b>
Bosnia-Herzegovina	4	0,97	6	0,80	50,00	2	0,59
Errumania			1	0,13		1	0,30
Errusia	3	0,73	6	0,80	100,00	3	0,89
Serbia-Montenegro			6	0,80		6	1,78
Jugoslavia	10	2,43	9	1,20	-10,00	-1	-0,30
Hungaria	5	1,21	6	0,80	20,00	1	0,30
<b>Gainontzeko Europa</b>	<b>22</b>	<b>5,34</b>	<b>34</b>	<b>4,54</b>	<b>54,55</b>	<b>12</b>	<b>3,56</b>

Nazionalitatea/ Jatorria	2001		2004		Bariazioa 2001-2004		
	Zenbakia	Totalaren gaineko %	Zenbakia	Totalaren gaineko %	Hazkundera %	Totalaren gaineko %	% Bariazioa
Alemania	1	0,24	2	0,27	100,00	1	0,30
Finlandia	2	0,49	1	0,13	-50,00	-1	-0,30
Frantzia	8	1,94	9	1,20	12,50	1	0,30
Italia	1	0,24	2	0,27	100,00	1	0,30
Irlanda			1	0,13		1	0,30
Norvegia			2	0,27		2	0,59
Herbehereak			2	0,27		2	0,59
Portugal	41	9,95	55	7,34	34,15	14	4,15
Erresuma Batua	3	0,73	6	0,80	100,00	3	0,89
Belgika	1	0,24	1	0,13	0,00	0	0,00
Suedia	2	0,49	1	0,13	-50,00	-1	-0,30
<b>Europako Eremu Ekonomikoa</b>	<b>59</b>	<b>14,32</b>	<b>82</b>	<b>10,95</b>	<b>38,98</b>	<b>23</b>	<b>6,82</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>412</b>		<b>749</b>		<b>81,80</b>	<b>337</b>	<b>100,00</b>

Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)

Hain zuzen ere, 2004. urtean nazionalitate atzerritarra duen populazioa %82 igo da 2001. urteko datuekin alderatuz. Igoera hori Latinoamerikako hainbat herrialdeetatik iritsitako pertsonen eragin dute (igoeraren %60 dira), eta baita Marokotik etorritakoek ere. Gauzak horrela, nazionalitateen kontinente/arlokako eboluzioaren analisiak honako hau baloratzea ahalbidetzen du:

- **Afrika kontinente** osoko nazionalitatekoek, orokorrean, eta bereziki baita **Magrebekoek** ere, oso presentzia murriztua dute herrian eta azken urteotan aldaketa gutxirekin, **Marokotik** etorritakoen kasuan izan ezik; azken horiek dira immigranteen kolektibo nagusia urte askoan, eta gora egin du gainera (aztertutako epean ia %50), nahiz eta immigrazioak bere osotasunean baino hazkunde motelagoa izan duen.
- Eibarko immigrante gehienak **latinoamerikatik** etorritakoak dira; azken hiru urteetan gorakada nabarmena izan dute gainera (ia hirukoiztu egin da populazioa 2001. urteaz geroztik). Latinoamerikarrak dira, era berean, jatorri ezberdin gehien dutenak, nahiz eta etorreren portaera ere nahiko bariatua den: herrialde batzuk hazkunde homogeenagoa izan dute azken urteotan (**Kolonbia** edo **Brasil**), eta aldiz, **Ekueadorrek** edo **Argentinak** 2001ean 3-4 herritar zituzten herrian eta gaur egun 47 eta 46 bizilagun dituzte hurrenez hurren. **Ipar Amerikako** bizilagunak guztiak dira estatubatuarak, eta euren presentzia herrian oso txikia da.
- **Europa**: kolektiboa aztertzerakoan agertzen den lehendabiziko banaketa honako hau da: bizilagun komunitarioen (edo Europako Eremu Ekonomikoko bizilagunak) eta komunitatez kanpoko bizilagunen arteko bereizketa, bi taldeek jasotzen duten tratamendu administratibo desberdinagatik. Ikerketa batzuk diote ez dela zuzena esatea komunitatez kanpoko herrialdeetatik datorren immigrazioa dela arazo gehien dituen, eta portugaldarren<sup>7</sup> kasua nabarmentzen dute. Hala ere, ikerketan bi arloak bereiztea interesgarritzat jo da. **Portugalez** gain (Eibarko populazio komunitarioaren %67),

<sup>7</sup> Eibarren nazionalitate portugesa duten pertsonen herriko hirugarren atzerritar kolektiborik jendetsuena osatzen dute.

bakarrik Frantziak eta Erresuma Batuak dute herrian presentzia apur bat, eta azken urteotako eboluzioa, herrialde penintsularraren kasuan izan ezik, mugatua da. Europako beste herrialde batzuetatik iritsitako populazioaren jatorria, batik bat, **Jugoslavia zaharra** desagertzearekin batera sortutako herrialde berriak dira (Bosnia-Herzegovina, Serbia-Montenegro edo Jugoslaviak betetzen dute totalaren %62), **Errusiaz eta Hungariaz** gain. Azken urteotan herrialde horietako bizilagun kopuruak gora egin badu ere, oraindik ere kopuru txikia da eta zaila da etorkizunean zein eboluzio izango duen jakitea.

- **Asiatik** datorren populazioaren gehiengoa txinatarra da: herrian bizi direnek gora egin dute aztertutako hirurtekoan kopurua ia bikoiztu arte, nahiz eta presentzia txikia izan. Asiako beste herrialde batzuetatik ailegatutako bizilagunik ia ez dago (2001ean Filipinak eta Tailandiako norbanako batzuk bizi ziren Eibarren, eta gaur egun Malaysiako 3 pertsona bizi dira); desagertutako URSSetik jaiotako herrialdeetako, Ekialde Hurbileko... bizilagunik ez dago. **Ozeaniakoak** denak dira australiarrak; horien kopuru txikia ez da aldatu azken 3 urteetan.
- **Komunitatez kanpoko kolektiboari** begiratzen badiogu, batez ere **marokoarrak** dira nagusi (%39,1) eta **kolonbiarrak** (%12,8) bigarren postuan: bi herrialdeek dute Eibarren ordezkartzarik zabalena. **Zonaldeka, latinoamerikarrak dira komunitatez kanpoko immigrazio totalaren erdia.**

### 3.4.- Finkapena udalerrian eta immigrazio jarraibideak


Une jakin batean udalerrian bizi direnen jatorriari eta eboluzioari buruzko informazioa aurkeztu da. Hala ere, analisi horrek ez du zehazten pertsona horien egonaldia eta behin errolatuta, gelditu egiten ote diren edo epe laburrean joan egiten diren<sup>8</sup>.

Datu hori garrantzitsua da herriko asentamendu maila zehazteko orduan: immigranteak iragaitzaz dauden edo ez, zenbatek asetu ditu ailegatzean zituzten lehen beharrak eta beste fase batean daude... alegia, euren integrazioa errazteko neurriak edo estrategiak zehazteko orduan oihartzun garrantzitsuak dituzten arloak.

Zentzu horretan informazio historikoa mugatua denez, herritar atzerritarren etorrerako urtearen analisiak erakusten ditu lekualdaketaren, erresidentzia epearen... inguruko alde garrantzitsu batzuk.

Puntu horren gaineko informazioa 2001eko Erroldako datuei dagokie, eta baita 2004ko Erroldaren erregistroei dagokienak ere.

#### 2001ean herrian bizi ziren atzerritarren etorrera urtea




Iturria: INE

Hau da, **2001. urtean komunitatez kanpoko nazionalitatedunak, gehienak, azken zazpi urteetan ailegatutakoak ziren** (ia hamarretik sei), Europako Batasunekoak (portugesak barne) Eibarrera 1990. urtea baino lehen ailegatu ziren (kolektiboaren %64). Soilik %41 finkatu zen herrian azken lau urteetan.

<sup>8</sup> Alegia, aurkeztutako datuek ez dute erakusten 2004. urtean Eibarren zeuden 82 kolonbiarren artean ote dauden 2001ean zeuden 42ak, edo bakarrik horietako batzuk.

2004ko ekainean herrian bizi zirenekin egin zen analisi berak konfirmatzen du azken urteetako immigrazioaren etorreraren garrantzia. Biztanlego hori<sup>9</sup> batez ere azken urteetan ailegatu da: **erdia baino gehiago (%51,3) 2001. urtea eta gero hasi da herrian bizi izaten** (komunitarioen artean soilik hamarretik hiru ailegatu dira 2001etatik aurrera).

### 2004ean herrian bizi diren atzerritarren etorrera urtea



Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

**Etorreraren daten** analisiak eskaintzen du, hala ere, guneka bereiztutako panoramika:

- Gutxi gora behera **marokoarren %57** (nazionalizatu gabea) **2001etik aurrera ailegatu da.**
- Kolonbiarren artean, portzentaia hori handiagoa da, **Latinoamerikako** beste herrialde batzuetatik ailegatutako pertsonekin gertatzen den moduan: **hamarretik zortzi baino gehiago iritsi dira 2000. urtea eta gero.**
- Beste herrialde batzuetatik ailegatutako pertsonen fluxuaren jarrera ez da hain nabarmena: Afrikako beste herrialde batzuetako (Maroko izan ezik) eta baita gainerako Europako kolektiboek ere gora egin dute baina proportzio txikiagoan azken aldian. Salbuespena Asiako herrialdeak dira (2003an etorrera handiagoa izan zuten,) nahiz eta euren kopurua nahiko murrizta den, eta horregatik ez da erraza jakitea tendentzia den edo ezusteko oszilazioa.



### Eibarrera iritsitako komunitatez kanpoko atzerritarren portzentajezko banaketa urte/eparen arabera

<sup>9</sup> Erreferentziak nazionalitate espainola ez duten biztanleekiko. Atzerrian jaio baina nazionalitate espainiarra duten biztanlegoaren analisia geroago egingo da.


	GUZ TIRA	Asia	koloNbia	Maroko	Ertamerika/ Hegoamerika	Gainont zeko Europa	Ipar Amerika	Ozeania	Gainon tzeko Afrika
1980 baino lehen	1,9	0,0	1,2	2,4	1,7	0,0	0,0	33,3	0,0
1980 -1990	3,2	0,0	0,0	6,5	0,8	0,0	0,0	66,7	0,0
1991-1995	6,5	11,8	0,0	4,5	0,4	71,9	50,0	0,0	25,0
1996 -1999	13,0	5,9	8,6	20,3	8,0	0,0	0,0	0,0	41,7
2000	8,2	0,0	13,6	8,5	8,0	3,1	0,0	0,0	0,0
2001	12,7	11,8	33,3	13,8	6,7	0,0	0,0	0,0	8,3
2002	16,3	5,9	18,5	13,0	21,4	6,3	50,0	0,0	8,3
2003	28,7	41,2	14,8	23,2	41,2	15,6	0,0	0,0	16,7
2004	9,5	23,5	9,9	7,7	11,8	3,1	0,0	0,0	0,0

Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

#### Jatorri marokoarra dutenen banaketa Eibarrera iritsitako urtearen arabera



#### Jatorri latinoamerikarra dutenen banaketa Eibarrera iritsitako urtearen arabera



Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

Eskura dauden datuen mugak <sup>10</sup> kontutan izanik, herrian gelditzeko aurretiko joera antzeman daiteke: 2001ean Eibarren bizi ziren atzerritarren kopuru osotik, bakarrik %7 ez zegoen erregistratuta Erroldan 2004ean. Nazionalitateka eginez gero analisisia ez da hain esanguratsua: aldaketa nagusienak hasieran ordezkaritza txikia zuten nazionalitateen artean ematen dira (batez ere Latinoamerikako herrialdeak).

Epe desberdinetan ailegatu den populazioaren beste ezaugarri batzuei dagokienez, 2003an azken 3 urteetako tendentzia apurtzen da, alegia, urte horietan gizonzkoen etorrera izan zen nagusia, eta ordura arte une desberdinak bizi izan ziren: 80-90 eta 96-99, emakumeek gizonak gainditzen dituzte, aldiz, ez da horrela gertatzen 1991 eta 1995 urteen artean.

Interesgarria da analisi honetan sartzea, datuek uzten duten neurrian, herrira heltzean immigranteek duten jarrera. Horretarako, Eibarrera ailegatu diren eta 2004an Erroldan zeuden atzerritarren jatorria aztertu da. Emaitzek zera aurreratzen dute:

- **Nazionalitate atzerritarra duten pertsonen %6 Estatuan jaio da. Horietatik %70 herrian bertan jaio da.** Marokoarrek eta portugesez dute asentamendu mailarik

<sup>10</sup> Erregistroan eman daitezkeen akatsak, nazionalitatea lortu eta beste herri batzuetara joan eta bajan eman ez direnak...

altuena: Eibarren jaiotako atzerritarren %70ak nazionalitate marokoa du (21 pertsona), eta %20ak portugesa (6 pertsona). Populazio atzerritarra jaio den beste herri batzuk EAekoak dira (Donostia, Lekeitio, Gernika) edo Kataluniakoak (Mataró, Calella), Madrilekoak, Errioxakoak, Galziakoak... baina oso kopuru txikian.

- **Beste herrialde batzuetan jaiotakoei** dagokienez, atzerritarren artean **hamarretik seitik gora** Eibar aukeratu zuten **lehen helbide moduan** euren jatorritik irten eta gero.
- **Lehen helmuga Eibar izan ez zutenen** artean<sup>11</sup>:
  - Ez da ohikoa euren kontinente bereko, Europako Batasuneko edo munduko beste herrialde batera joatea aurrena (oro har, populazio osoaren %1,2aren irteera puntua dira).
  - %18,4 **EAeko beste herri batzuetan** bizi izan da aurretik: %11,06 Bizkaian, %1,05 Araban eta %6,28 Gipuzkoan.
  - **Beste Erkidego batzuek**, Eibarrera iritsi aurretik, jaso dute gainerako %17,93, **Katalunia** nabarmenduz (%5,2); **Andaluzia** (%2,4, Almeria batez ere); **Madril** (%2,24) eta **Murtzia** (%2,09); nahiz eta batzuk Galizia, Errioxa edota Balentzian ere bizi izan diren.

---

<sup>11</sup> Kontutan izan behar da dagoen informazioa Eibarrera iritsi aurreko lekuari dagokiola, beste herrialde, komunitate edo herrietatik egindako ibilbidea ez da jasotzen.

## Zuzenean Eibarrera joaten diren atzerritarren portzentaia

Nazionalitatea / Jatorria	% Jatorri zuzena
Afrikako beste herrialde batzuk	28,5
Argeria	80,0
Mariko	58,1
<b>AFRIKA</b>	<b>57,7</b>
Argentina	91,3
Bolivia	65,4
Brasil	70,0
Txile	100,0
Kolonbia	57,50
Kuba	68,42
Ekuador	57,45
Dominikar Errepublika	50,00
Venezuela	68,42
El Salvador	100,0
Mexiko	100,0
Nikaragua	100,0
Paraguai	50,0
Peru	40,0
Uruguai	80,0
<b>LATINOAMERIKA</b>	<b>66,6</b>
USA	0,0
Australia	75,0
Txina	14,3
Malasya	100,0
<b>ASIA</b>	<b>38,1</b>
Bosnia-Herzegovina	100,0
Errumania	0,0
Errusia	50,0
Serbia-Montenegro	0,0
Jugoslavia	100,0
<b>EKIALDEKO EUROPA</b>	<b>69,2</b>
Portugal	71,1
<b>PORTUGAL</b>	<b>71,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>62,5</b>

*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*

Eibarrera zuzenean iritsi diren pertsonen proportzioa altuxeagoa da Latinoamerikako herrialdeetatik, Ekialdeko Europatik... etorritakoen artean. Hala ere, analisisa are nabarmenagoa da, herrian presentzia altuena duten nazionalitatedun pertsonen immigrazio-ibilbidea aztertzen baldin bada:

- **Nazionalitate marokoarra** duen populazioa: aurretiko jatorri gisa Maroko agertzen bada ere aurrean (%58,1), %8,5 aurrez Katalunian bizi izan da. Nekazari-lanen ohiko lekuak (Almeria, Murtzia...) aurretiko erresidentzia lekuak izan dira Eibarren bizi diren

marokoarren %10arendako. Gainera, ia %14 aurrez EAeko beste herri batzuetan bizi izan da, batez ere Bizkaian (Bilbon eta Ermuan gehienbat).


- **Kolonbiarrak:** Kolonbiatik zuzenean etorritako pertsonen antzerako portzentaiarekin (%57,5), baina maizagoa da aurrez Madrilen bizi izatea (%5); hala ere, lautik batek baino gehiagok dio Bizkaian bizi izan dela Eibarrera etorri baino lehen, gehiengo Bilbon eta Ermuan.
- **Argentinarrak:** Ia gehiengo zuzenean etorri da Eibarrera bizi izatera beste herri batzuetatik pasatu gabe. Baina beste herri batzuetan bizi izan direnak Gipuzkoan bizi izan dira.
- **Ekudorreko** nazionalitatea dutenen artean %5 bizi izan da Katalunian, baina batez ere Gipuzkoako beste herrialde batzuetan (%27,7).
- **Brasildarrak** zuzenean aukeratu dute EAeko herriren bat erresidentzia gisa. Eibarren zuzenean finkatu den %70az gain, %23 Bizkaiko herriren batean bizi izan da aurretik.

### 3.5.- Kanpoan jaiotako pertsonak edo nazionalizatutako atzerritarrak

Beste nazionalitate batzuetako populazioaren inguruan egindako analisien osagarri gisa interesgarria da ikertzea Eibarko populazioaren jaiotze lekua. Alde batetik, atzerrian jaiotako pertsona batzuk Espainiako nazionalitatea hartzen dute, hainbat arrazoiengatik Espainiatik alde egin behar izan zutenen oinordekoak direlako (batez ere Latinoamerika, baina baita Errusia edota Frantzia ere).

Are aipagarriagoa da ikertzea, atzerrian jaio baina Eibarren finkatu eta gero hainbat formularen bitartez nazionalitatea lortu izana. Bi egoerak bereiztea zaila denez, fenomenoaren panoramika orokorra aurkezten da.

#### Eibarren bizi eta .....n jaiotako populazioaren eboluzioa



Iturria: INE

Aurreko grafikoan azaltzen den moduan, Estatuan zein EAEn, Gipuzkoan edo Eibarren jaio eta Eibarren bizi den populazioaren eboluzioa murrizten joan da 1996a geroztik (erritmo desberdinean), eta aldiz atzerrian jaiotakoen kopuruak gora egin du pixkanaka.

Atzerrian jaiotako populazioa nazionalitate atzerritarra duenarekin alderatzerakoan desberdintasun nabarmenak ageri dira, progresiboki hazten joan direnak: 2001ean nazionalitate atzerritarra eta atzerrian jaiotakoen arteko diferentzia %8 ingurukoa zen azkenekoaren alde, eta aldiz, 2004ean nazionalitate atzerritarra dutenak atzerrian jaiotakoen %76 dira.

## Atzerrian jaiotako pertsonak eta nazionalitate atzerritarra dutenak

	2001	2002	2003	2004
Atzerrian jaiotakoak	432	579	730	985
Nazionalitate atzerritarra	398	491	582	749
Diferentzia	34	88	148	236

*Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)*

Diferentzia horretan zeresana dute izaera kontrajarriko bi fenomenok: alde batetik, nazionalitate atzerritarrari eusten dioten batzuk Estatuan jaio dira (gehienbat Eibarren), eta aldiz beste batzuk, Espainiako nazionalitatearekin, atzerrian jaio dira.

Soilik estatistika erregistro batzuek bereizten dute nazionalitate atzerritarra dutenen eta beste herrialde batzuetan jaiotakoen artean jatorria identifikatuz. Hurrengo taulan ikusten den moduan, nazionalitate/gune nagusiak Eibarren ordezkaturik, diferentziak nabarmenak dira jatorriz marokoarrak eta Europako Batasunekoak direnean artean.

	2004
<b>Maroko</b>	
<b>Atzerritarrak</b>	<b>273</b>
Atzerrian jaiotakoak	287
Estatuan jaiotako atzerritarrak	25
Nazionalizatuak	39
<b>Kolonbia</b>	
<b>Atzerritarrak</b>	<b>82</b>
Kanpoan jaiotakoak	81
Estatuan jaiotako atzerritarrak	1
<b>Ekueador</b>	
Atzerritarrak	47
Kanpoan jaiotakoak	47
<b>Europako Batasuna</b>	
<b>Atzerritarrak</b>	<b>82</b>
Atzerrian jaiotakoak	153
Estatuan jaiotako atzerritarrak	9
Nazionalizatuak	80

*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*

2004ko egoeraren konparazioak, beti ere kontutan izanik dauden datuen mugak eta kolektiboa murriztu dela, fenomeno honen ezaugarri batzuk adieraztea ahalbideratzen du:

- **Latinoamerikatik** etorritako pertsona nazionalizatuak, Eibarren bizi den nazionalizatu gabeko kolektiboaren herena dira. Nazionalizatu kopururik handienak Eibarren komunitate handia osatzen ez duten herrialdeetan gertatzen direnez (Kuba eta Mexiko), ziur asko herrialde horietara iritsi aurreko emigrazioarekin harreman estuagoa dute (neurri txikiagoan Argentina eta Venezuela).
- **Marokotik** etorritako nazionalizatuak nazionalizatu gabekoen totalaren zati txikia dira (%14), nahiz eta herriko atzerritarren komunitate handienaren jatorria izan, eta euren asentamendua epe luzeagoan gertatu izan den.
- **Europako Batasunean** jaiotakoek nazionalizazio maila altuagoa dute, eta beraz, nazionalizatu eta nazionalizatu gabekoen kopurua antzekoa da. Pertsona horiek jaiotzen ziren herrialdeei dagokienez, Frantzia da nagusi (nazionalizatutako erdia baino gehiago), eta atzetik, urrutiago, Portugal.
- Nazionalizatutako **Ekialdeko Europako** kopurua altua da, batik bat, Errusian<sup>12</sup> jaiotakoei esker: nazionalizatutako artean lautik hiru jaiotzen dira Errusian.

### Atzerrian jaiotako nazionalizatu espainiarrak

Herrialdeak/guneak	Kopurua	Osoaren %	Nazionalizat gabekoen %
<b>Latinoamerika</b>	<b>108</b>	<b>38,71</b>	<b>33,64</b>
Argentina	24	8,60	52,17
Kuba	20	7,17	105,26
Venezuela	12	4,30	63,16
Mexiko	9	3,23	225,00
Brasil	8	2,87	19,51
Beste herrialdeak	32	11,47	16,67
<b>Afrika</b>	<b>42</b>	<b>15,05</b>	<b>14,74</b>
Afrikako beste herrialdeak	3	1,08	42,86
Maroko	39	13,98	14,03
<b>Ekialdeko Europa</b>	<b>20</b>	<b>7,17</b>	<b>58,82</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>80</b>	<b>28,67</b>	<b>97,56</b>
Asia	12	4,30	63,16
Ipar Amerika	5	1,79	166,67
Ozeania	5	1,79	100,00
Sin identificar	7	2,51	s.d.
<b>TOTAL</b>	<b>279</b>	<b>100,00</b>	<b>37,20</b>


12 Ziur asko Gerra Zibilarekin lotutako arrazoi historikoek azaltzen dute Frantzian eta Errusian jaiotakoek nazionalitateen arteko diferentzia.

### 3.6.- Immigranteak sexuaren arabera


Migrazio prozesu honetan **gizonezko eta emakumezkoen partizipazioari** dagokionez, diferentzia nabarmenak antzematen dira Eibarren finkatutako populazioan:

- **Komunitatez kanpoko populazioaren totalen gizon eta emakumeen arteko banaketa nahiko berdina** izan arren<sup>13</sup>, berdintasun hori jarrera diferentziatuetatik da, jatorriaren arabera.

**Gizon eta emakumeen proportzioa atzeritarren artean**



**Gizon eta emakumeen proportzioa komunitatez kanpokoaren artean**



*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*

- **Nazionalitate afrikarra** duten pertsonen artean, **emakume bakoitzeko bi gizon** finkatu dira herrian (Marokotik ez datozenen artean proportzioa altuagoa da).

Alegia, immigrazioa maskulinoa da gehienbat.

### Komunitatez kanpoko populazioaren osaketa Eibarren sexu, nazionalitate gunearen arabera


	Gizonak		Emakumeak		Gizonezko en %
	Abs.	%v	Abs.	%v	
- Afrika	189	56,9	97	28,87	66,1
Maroko	179		95		65,3
Afrikako beste herrialdeak	10		2		83,3
- Amerika	115	34,6	209	62,20	35,5
Kolonbia	28		54		34,1
Latinoamerikako beste herrialdeak	85		154		35,6
Ipar Amerika	2		1		66,7
- Asia	10	3,0	9	2,68	52,6
- Europako beste herrialdeak	16	4,8	18	5,36	47,1
- Ozeania	2	0,6	3	0,89	40,0
<i>GUZTIRA EUROPEAR BATASUNEKOAK EZ DIRENAK</i>	<i>332</i>	<i>100,0</i>	<i>336</i>	<i>100</i>	<i>49,7</i>

*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*

<sup>13</sup> Europako Batasuneko atzeritarrak ere kontutan hartzean, gizonezkoen kopuru altuagoa igartzen da.

\_ **Latinoamerikako kolektiboan** fenomenoa alderantzizkoa da, eta oso proportzio antzekoan: **Latinoamerikatik ailegatutakoen ia bi herenak emakumeak dira**. Herrialdeka aldagarri hori ikustean, diferentzia nagusia nazionalitate argentinarra dutenen artean ikusten da (hirutik bi gizonak dira). Peru, Txile eta Uruguai nazionalen artean ere gertatzen da hori, baina populazioaren zati txiki bati gertatzen zaionez ez da aipagarria.

**Gizon eta emakumeen proportzioa jatorrizko herrialdearen arabera**




*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*


\_ Asiatic etorritakoek **banaketa homogeenoa** erakusten dute, eta aldiz, **EBkoak ez diren Europako herrialdeen artean, emakumeen kopurua altuagoa da (%52,9)**. Gainontzeko taldeetan, immigrante kopurua oso murrizta denez ez da nabarmentzekoa.

Horrek esan nahi du, Eibarren bizi diren komunitatez kanpoko immigranteen **gizonezkoetatik %56,9 Afrikatik datozela, eta emakumeen %61,9 Latinoamerikatik**.

**Komunitatez kanpoko gizonen banaketa portzentuala jatorrizko herrialdearen arabera**



**Komunitatez kanpoko emakumeen banaketa portzentuala jatorrizko herrialdearen arabera**




*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*

### 3.7.- Populazio immigrantea adinaren arabera

Herrialde garatuetan immigrazioaren fenomenoan positibotzat jotzen da, herrialde bateko **populazioaren zaharkitzearengan duen eragin potentziala**<sup>14</sup>, kontutan izanik gehienetan emigratzen duten pertsonak gazteak direla. Gainera, harrerako herrietan baino jaiotze tasa altuagoak dituzte, eta horregatik geldiarazi egiten dute azken urteotan kezka iturria bilakatu den fenomenoa.

#### Adin-piramidea Eibarren. 2004



Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2003/12/31 datuak

#### Eibarko biztanleak sexuaren eta adin taldeen arabera. 2004


	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Abs.	%v	Abs.	%v	Abs.	%v
Otik 5era	574	4,1	537	3,7	1111	3,9
6tik 16ra	1112	8,0	1117	7,8	2229	7,9
17tik 24ra	1451	10,5	1386	9,6	2837	10,1
25etik 44ra	4364	31,5	4022	28,0	8386	29,7
45etik 64ra	3673	26,6	3664	25,5	7337	26,0
65etik 74ra	1601	11,6	1955	13,6	3556	12,6
75 eta gehiago	1058	7,6	1705	11,9	2763	9,8
<b>Guztira</b>	<b>13833</b>	<b>100,0</b>	<b>14386</b>	<b>100,0</b>	<b>28219</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2003/12/31 datuak

<sup>14</sup> Jaiotze tasan edo zaharkitzean immigrazioak dituen ondorioekin lotutako hainbat ikerketa egin izan dira. Horietako batzuek diotenez ondorioa mugatua da epe luzera hainbat arrazoiengatik –denborarekin immigraanteen jaiotza tasak harrerako gizartera moldatzen dira...-. Inplikazioak epe motz-ertainera gure lurraldean ere antzematen hasiak dira.

EAEn gertatutako aldaketa demografikoen eraginez, baita gure inguruko beste arlo batzuetan ere, populazioaren batz besteko adina aldatzen ari da, eta adineko piramideak deiturikoetan adin altuko populazioaren presentzia handiagoa da, eta aldiz, oinarria txikiagoa. Egoera hori Eibarren ere ari da igartzen.

### Eibarko populazio osoaren eta komunitatez kanpoko populazioaren banaketa portzentuala adin taldeen arabera. 2004



Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2003/12/31 eta 2004ko ekaineko datuak

Kontutan hartzen badugu **Eibarko biztanleen batz besteko adina** (gaur egun **45 urteren inguruan**, Erroldaren datuen arabera), immigranteen adina aztertzerakoan honako puntu hauek nabarmentzen dira:


Atzerritarren batz besteko adina 30,4 urteren bueltan dago, eta adin horrek behera egiten du **komunitatez kanpoko pertsonetan, batz beste 29,6 urterekin**, hau da, batz beste orokorra baino hamabost urte gutxiago. Ikusten denez, 60 urtetik gorakoetan populazioak nabarmen egiten du behera, eta 20 eta 50 urte bitartean gertatzen da kontzentrazio handiena.

### Eibarko populazio atzerritarra eta komunitatez kanpoko sexuaren eta adin taldeen arabera. 2004

	Populazio atzerritarra			Ebetik kanpoko populazioa		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0tik 5era	22	13	35	21	12	33
6tik 16ra	46	56	102	44	54	98
17tik 24ra	52	55	107	46	50	96
25etik 44ra	206	187	393	181	173	354
45etik 64ra	46	44	90	33	36	69
65etik 74ra	3	9	12	2	8	10
75 eta gehiago	5	5	10	4	4	8
<b>Guztira</b>	<b>380</b>	<b>369</b>	<b>749</b>	<b>331</b>	<b>337</b>	<b>668</b>

Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

## Komunitatez kanpoko populazioaren adin-piramidea. 2004



Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

- Nazionalitateei eta nazionalitate guneei dagokienez, **afrikarrak eta latinoamerikarrak dira gazteenak**: bi herrialdeetatik ailegatutako populazioaren artean, batz besteko adina 30 urtetik beherakoa da. Gizon eta emakumeen arteko adin desberdintasunak aztertzerakoan ikusten da Latinoamerikatik etorritako emakumeen adina altuagoa dela (are nabarmenagoa Kolonbiatik datozenen artean).
- Herrian orokorrean hiru pertsonatik bat adin epe ez-aktiboan dago, eta aldiz, komunitatez kanpokoaren artean hamarretik bi daude egoera horretan. Horrela, **populazio atzerritarren eta komunitatez kanpokoaren dependentsia tasa herrikoarena baino nabarmen baxuagoa da**: %21,2 eta %22,3 hurrenez hurren, eta Eibarren %34,2.

### Adin egiturari dagozkion magnitudeak

#### Populazio osoa, atzerritarra eta komunitatez kanpokoak

	Guztira Eibar	Atzerritarrak	Ebtik kanpokoak
Populazio osoa	28.219	749	668
Populazio dependientea <sup>15</sup>	9.659	159	149
Dependentzia proportzioa	34,2	21,2	22,3
Pertsona burujabeak mendeko bakoitzeko	1,9	3,7	3,5

Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)

<sup>15</sup> 0 eta 16 urte bitarteko populazioa eta 64 urtetik gorakoa

Gaur egun bizi dugun populazioaren zaharkitze egoeran, pentsio sistemaren mantenuaren inguruan mahai gainean dagoen debatea dela eta, honako datu hau esanguratsua da: atzerritarren artean, pertsona burujabe bakoitzeko lau pertsona daude lan adinean, eta aldiz, Eibarko populazio orokorrean bitik bat. Gainera, atzerritarren artean, 65 urtetik gorakoen kolektiboak osatzen du lan adinean ez daudenen totalaren %16 (hau da, talde horretako pertsona burujabeak 16 urtetik beherakoak dira batez ere), eta aldiz, populazio orokorrean, 65 urtetik gorakoek lan adinean ez daudenen %65 osatzen dute.

### 3.8.- Immigrazioaren lokalizazioa

Ditugun datuetatik abiatuta, Eibarren dauden immigranteen kokapenaren analisiak, finkatze arauak identifikatzea ahalbidetzen digu eta era berean ezagutu zelako harremana duten elkarbizitzan atzerritarrek eta bertoko herritarrek.

Eibarko etxebizitzaren %4,8an bizi dira atzerrian jaiotako pertsonak (508 etxebizitza). Horietatik **lautik hirutan Estatutik kanpo jaiotako pertsonak Estatuan jaiotakoekin bizi dira** (hau da, etxebizitza guztien %4tik behera).

Kasu espezifiko batzuk baztertuta, (pertsona ugari bizi diren “etxebizitzak”-ostatu bereziak-), emaitzak honako modu honetan laburbildu daitezke:

84 etxebizitzatan **Estatutik kanpo jaio eta komunitatez kanpoko nazionalitatea duten** pertsonak bakarrik bizi dira (Eibarko etxebizitza guztien %0,8), batzaz beste etxebizitza bakoitzeko 3,1 pertsona.

- 145 etxebizitzatan **nazionalitate espainiarra eta komunitatez kanpokoak duten pertsonak elkarrekin bizi dira** (totalaren %1,4), batzaz beste etxe bakoitzeko 3,8 pertsona.
- **Espainiarrak eta Espainian nazionalizatutakoak** bizi diren etxebizitza kopurua 172koa da (totalaren %1,6) eta 3,6 pertsona etxe bakoitzeko; horietatik 1,1 batzaz beste Estatutik kanpo jaio da.
- 11 etxetan **komunitarioak eta komunitatez kanpokoak** bizi dira (etxe bakoitzeko 3 pertsona).

Etxe bakoitzeko pertsona kopurua aztertzerakoan nabarmentzen da atzerrian jaiotako pertsonaren bat bizi den etxeetan batzaz besteko pertsona kopuruak goranzko joera duela, eta are gehiago egiten du gora atzerritarrek Europako Batasunetik kanpoko nazionalitatekoak direnean.

#### **Etxebizitza parkea (totala, bizilagun atzerritar eta komunitatez kanpokoekin) eta etxe bakoitzeko pertsona ratioa**

	<b>Etxebizitza kopurua</b>	<b>Ratioa bizilagunak/etxebizitza</b>
Eibarko etxebizitza kopurua →	10.493	2,7
Atzerrian jaiotako pertsonaren bat bizi den etxe kopurua →	505	3,5
Atzerrian jaio eta komunitatez kanpoko nazionalitatea duten pertsonaren bat bizi den etxe kopurua →	266	3,7

*Iturria: INE eta Udal Errolda (2004ko ekaina)*

## Atzerrian jaiotako pertsonak bizi diren etxebizitzak etxe motaren eta batz besteko bizilagun kopuruaren arabera

	Etxebizitzak	Batz beste bizilagunak/ etxebizitza
Kanpoan jaio Espainian nazionalizatuak	25	1,1
Komunitarioak (Ez espainiarrak)	5	1,8
Komunitatez kanpokoak eta Komunitarioak	11	3,0
Komunitatez kanpokoak Espainiarrak eta Espainian nazionalizatutakoak	84	3,1
Espainiarrak eta Komunitarioak	172	3,6
Espainiarrak, Komunitatez kanpokoak eta Komunitarioak	37	3,7
Espainiarrak eta Komunitatez kanpokoak	26	5,6
GUZTIRA	505	3,8

Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

Atzerritarren bat bizi den etxeen %15,8an, bizilagun kopurua lautik gorakoa da. **Komunitatez kanpoko pertsonaren bat bizi den etxeetan, horien laurdenetik gora -%27,8- lau bizilagunetik dituzte.**

**Atzerritarrak edo komunitatez kanpoko pertsonak bizi diren etxebizitzak eta kopurua lautik gorakoa denean**

Nº de individuos en la vivienda	Atzerritarren bat bizi den etxebizitza (*)		Ebtik kanpokoren bat bizi den etxebizitza (*)	
	Abs.	%(**)	Abs.	%(**)
5 bizilagun	26	5,1	24	9,0
6 bizilagun	27	5,3	24	9,0
7 bizilagun	16	3,2	15	5,6
8 bizilagun	8	1,6	8	3,0
9 bizilagun	1	0,2	1	0,4
10 bizilagun	2	0,4	2	0,8
Guztira etxeb.	<b>80</b>	<b>15,8</b>	<b>74</b>	<b>27,8</b>

(\*) Ez dira kontutan izan bizilagun kopurua 15tik gorakoa duten 3 etxebizitza, ostatu berezitat hartzen direlako.

(\*\*) Bizilagun-ezaugarri beretsuak dituzten etxeen parkeari dagokion portzentaia (gutxienez atzerritar bat edo komunitatez kanpoko pertsona bat bizi da).

Iturria: Udal errolda (2004ko ekaina)

Atzerritarrak bizi diren **auzoen** analisiaren bidez hainbat alor garrantzitsu identifikatu daitezke:

- **Zentroan** bizi da atzerritar kopururik handiena: ia lautik bat bizi da auzo horretan. Proportzio hori, hala ere, biztanlego eibartarraren totala baino apurtxo bat txikiagoa da.


- **Urki, Urkizu, Amaña eta Azitain** auzoetan ere atzerritar dezente bizi dira. Lehen hiru auzoetan bizi den atzerritar kopurua herrian oro har dagoen banaketaren antzekoa da, eta Azitainen apurtxo bat altuagoa da.
- **Txonta eta Baserri Auzoak** auzoetan bizi da proportzionalki atzerritar gehien, nahiz eta kopuru osoa, batez ere azken horretan, nahiko mugatua den.

**Eibarko biztanlego osoa eta komunitatez kanpoko immigranteak, bizilekuaren arabera. Komunitatez kanpoko immigranteen portzentaia populazio osoarengan**

	Populazio osoa	% v Guztira	Ebtik kanpoko etorkinak guztira	EBtik kanpoko etorkinen % v	% EBtik kanpoko etorkinak populazio osoarengan
AMAÑA	3.762	13,5	71	10,6	1,9
AZITAIN	1.577	5,7	66	9,9	4,2
BASERRI AUZOAK	415	1,5	16	2,4	3,9
ERDIA	8.672	31,1	148	22,2	1,7
IPURUA	3.006	10,8	67	10,0	2,2
JARDINES	1.090	3,9	23	3,4	2,1
LEGARRE	1.484	5,3	18	2,7	1,2
TXONTA	743	2,7	43	6,4	5,8
URKI	3.890	13,9	91	13,6	2,3
URKIZU	3.258	11,7	78	11,7	2,4
Sailkatu gabe	-	-	47	7,0	-
GUZTIRA	27.897	100	668	100,0	2,4

Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

**Eibarko populazio osoaren eta komunitatez kanpoko populazioaren banaketa herriko guneen arabera**



Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)

Kokapena nazionalitatearen/nazionalitate gunearen arabera bereizterakoan, eta atzerritar kopurua altuagoa den auzoak kontuan izanik, bai era absolutuan bai erlatiboan, honako hau nabarmendu behar da:


- **Erdigunean**, nazionalitate latinoamerikarra dutenen kopurua altuagoa da, nahiz eta marokoarren kopurua ere garrantzitsua izan (gune horretan bizi dira nazionalitate marokarra dutenen artean bostetik bat).
- **Urki eta Urkizun** daude ordezkaturik Eibarko immigrazioaren nazionalitate gune desberdinak. Lehenengoan, Latinoamerikako pertsonen kopurua altuagoa da.
- **Amañan** atzerritarren artean latinoamerikarren kopurua da altuena, eta **Azitainen** marokorrek dira nagusi.
- **Txontan** eta **Baserri Auzoetan**, bizi den atzerritar kopuru txikia marokarra da.

## Komunitatez kanpokoan jatorria Eibarko bizilekuaren arabera


	Nazionalitate guinea	Abs.	% v		Nazionalitate guinea	Abs.	% v
<b>AMAÑA</b>				<b>JARDINES</b>			
	Kolonbia	13	18,3		Kolonbia	2	8,7
	Maroko	17	23,9		Maroko	5	21,7
	Ozeania	1	1,4		Ozeania	5	21,7
	Ertamerika/Hego Amerika	35	49,3		Ertamerika/Hego Amerika	10	43,5
	Gainontzeko Europa	5	7		Gainontzeko Europa	1	4,3
<b>AZITAIN</b>				<b>LEGARRE</b>			
	Kolonbia	3	4,5		Kolonbia	3	16,7
	Maroko	46	69,7		Mariko	1	5,6
	Ozeania	1	1,5		Gainontzeko Afrika	1	5,6
	Ertamerika/Hego Amerika	13	19,7		Ertamerika/Hego Amerika	13	72,2
	Gainontzeko Europa	3	4,5				
<b>BASERRI</b>				<b>TXONTA</b>			
	Maroko	14	87,5		Kolonbia	6	14
	Gainontzeko Afrika	1	6,3		Maroko	31	72,1
	Ertamerika eta Hegoamerika	1	6,3		Gainontzeko Afrika	1	2,3
					Ertamerika eta Hegoamerika	5	11,6
<b>ERDIA</b>				<b>URKI</b>			
	Asia	6	4,1		Kolonbia	23	25,3
	Kolonbia	11	7,4		Maroko	23	25,3
	Maroko	52	35,1		Ipar Amerika	1	1,1
	Gainontzeko Afrika	1	0,7		Ozeania	1	1,1
	Gainontzeko Ertamerika eta Hegoamerika	75	50,7		Gainontzeko Afrika	2	2,2
	Gainontzeko Europa	3	2		Gainontzeko Ertamerika eta Hegoamerika	31	34,1
					Gainontzeko Europa	10	11
<b>IPURUA</b>				<b>URKIZU</b>			
	Asia	10	14,9		Asia	2	2,6
	Kolonbia	6	9		Kolonbia	13	16,7
	Maroko	15	22,4		Maroko	37	47,4
	Gainontzeko Afrika	1	1,5		Ipar Amerika	1	1,3
	Gainontzeko Ertamerika eta Hegoamerika	30	44,8		Gainontzeko Ertamerika eta Hegoamerika	22	28,2
	Gainontzeko Europa	5	7,5		Gainontzeko Europa	3	3,8

Iturria: Udal errolda (2004ko ekaina)


**Kolonbiarren banaketa portzentuala Eibarko guneen arabera**



**Marokoarren banaketa portzentuala Eibarko guneen arabera**



**Gainontzeko Erta eta Hego amerikarren banaketa portzentuala Eibarko guneen arabera**



*Iturria: Udal Errolda (2004ko ekaina)*

### 3.9.- Immigranteen hezkuntza maila

Immigranteen hezkuntza mailaren analisiak kontutan hartu behar du alor hori identifikatzeko orduan Erroldak dituen mugak (arazoak hezkuntza maila definitzerako orduan, erregistroaren eguneratze falta...). Hala ere, adierazgarri interesgarria da lan merkatuan integratzeko bidean potentzialtasunak eta beharrak antzemateko eta hezkuntza alorrean estrategiak definitzen laguntzeko.

Udal Erroldak dioenez, honako oinarrizko baldintzak ezarri daitezke (komunitatez kanpoko 16 urtetik gorakoak) Eibarren bizi diren komunitatez kanpoko biztanleen hezkuntza mailari dagokionez:


- Ia kolektiboaren erdiak egin ditu **lehen mailako** ikasketak (%48,8)
- %12,8k **batxilergoa edo UBI** du egina
- %7,4k ditu **unibertsitateko ikasketak**, ertainak edo goi mailakoak.
- %5,5k egin ditu **lanbide heziketako** kurtsoak.
- %4,5a **analfabetoa da edo ikasketa gabekoa**.
- Ia %19,4an **ez da agertzen**, Erroldan, pertsona horien hezkuntza maila.

Datu hauek EAEko<sup>16</sup> populazio atzerritarrarekin alderatzerakoan, oro har, zera nabarmentzen da: Eibarko hezkuntza mailaren zehaztapen eza –pertsona kopuru altu baten ikasketa mailari buruzko informaziorik ez dago-, derrigorrezko hezkuntza mailan atzerritar kopuru altua (EAEn %23 soilik dira), baxuagoa bigarren hezkuntzan, eta **analfabeto eta ikasketarik gabekoen askoz ere kopuru txikiagoa**. Nahiz eta talde horretan sartu euren hezkuntza maila ezagutzen ez den pertsona multzoa, EAEko atzerritarren totalarekin alboratuz, hamar puntu baxuagoa izango litzateke.

---

<sup>16</sup> Immigrazioko Euskal Planeko datuak (PMH 2001, Eustat)

**Eibarko komunitatez kanpoko 16 urtetik gorakoen eta EAEko\* atzerritarren banaketa portzentuala ikasketa mailaren arabera**




\* EAEn kasuan, populazioa 15 urtetik gorakoa da.

*Iturria: Udal Errolda, Euskat (PMH 2001)*

Populazio osoarekin analisi konparatiboa egitea zailagoa da, ez baititu segmentu homogeneoak hartzen: 14 urte eta gorakoak herriko populazio orokorrean sartzean, nabarmena da 14 eta 16 urte bitarteko pertsonak (kontatu gabeak atzerritarren artean) lehen eta bigarren mailako derrigorrezko hezkuntzan jardungo dutela. Edozein kasutan, nabarmenagoa da **lanbide heziketa** eta **bigarren mailako hezkuntzaren** eragina populazio orokorrean immigranteen populazioarekin alderatuz gero.

Goi mailako tituluak sarriagoak dira populazio orokorrean, eta beraz, esan dezakegu populazio horren **hezkuntza maila ertain-baxua** dela nahiz eta aipatu den, Eibarren bizi diren **komunitatez kanpoko immigranteen artean lautik batek dituela bigarren mailako ikasketak, lanbide heziketa edo goi mailako ikasketak.**

**Eibarko komunitatez kanpoko 16 urtetik gorakoen eta herriko 14 urtetik gorakoen populazio osoaren banaketa portzentuala ikasketa mailaren arabera**



*Iturria: Biztanleen Udal Erroldako berrikusteak, 2003/12/31 datuak. Eustat (PMH 2001)*

#### 4.- ONDORIOAK

Eibarren immigrazio atzerritarra azkar ari da hazten azken urteetan, batez ere, Latinoamerikatik ailegatutako pertsonen eraginez. Hazkunde hori –2001ean bizi zen populazio atzerritarra ia bikoiztu egin da-, ez da nahikoa izan azken hamarkadako herriko populazio galerari aurre egiteko. Gainera, atzerritar kopurua nahiko mugatua mantentzen da (%2,7 bizilagun totalarekiko), beste leku batzuetako erregistroetatik oso urruti.

Gaur egun Eibarren 43 herrialdeetako nazionalak bizi dira, nahiz eta atzerritarren artean hirutik bi datoz herrian bizilagun gehien dituzten bost herrialdeetatik: Maroko, Kolonbia, Portugal, Ekuador eta Argentina dira, orden horretan eta marokoarrak<sup>1</sup> nagusituz, Eibarren komunitate gehien dituzten herrialdeak.

Populazio atzerritarra bertakoa baino nabarmen gazteagoa da, 30 urtetik beherako batz besteko adinarekin, eta menpeko pertsona bakoitzeko pertsona burujabe kopurua gizarte hartzailearekin alderatuz gero oso desberdina da (1,9 Eibar osorako eta 3,4 atzerritarren kolektiboan). Gainera, atzerritarren artean 65 urtetik gorakoen proportzioa oso txikia da: immigranteen artean lan adinean ez dauden pertsonen segmentu nagusia adin txikikoek osatzen dute.

Migrazio fluxuek 50-60 hamarkadetatik aurrera Eibarko historia markatu badute ere, gizarte hartzailearen eta populazio immigrantearen ezaugarriak oso desberdinak dira, eta aurre esperientziaren bitartez erantzun daitezkeen erronkak dakartzate.

Lehenengo eta behin, Estatu barruko migrazio mugimenduek inguruko lan merkatuko eskaera altu bati erantzun zioten, eta integrazioa, lan mailan, berehalakoa zen. Bestalde, desberdintasun kulturalak, baita hizkuntza oztupoak ere, nabarmenagoak dira gaur egungo immigrazioan.

---

<sup>1</sup> Populazio marokoarra da herrian finkatuen dagoena: Eibarren bizi diren Marokoko nazionalen ia %10 Estatuan jaio dira, gehiengoa herrian bertan, eta Marokon jaiotako talde batek du gaur egun nazionalitate espainiarra (nazionalitate marokoarra dutenen %14 inguru).

Diagnosian immigranteen integrazioarako oztopo diren hainbat muga edo arazo gehigarri azaldu dira. Laburbilduz, alor desberdinetan Eibarren immigranteen egoeraren ezaugarri batzuk adieraziko ditugu:

## **Hezkuntza**

Hezkuntza alorrean adin txikikoen eskolatzeari aztertu da. Nahiz eta printzipioz eskolatzeari bermatua egon, eta arazo berezirik ematen ez duen eremua izanik, eskoletako arduradunek diote ikasle immigranteen kontzentrazioa gertatzen ari dela.

Modu negatiboan baloratzen ez bada ere, baizik eta jaiotze tasaren aurrean hezkuntza sistemarako aukera gisa, ezaugarri desberdineko ikasleek dituzten behar espezifikoak aurre egiteko bitarteko eskasiak, ikastetxeetan gainezka egiten du eta kezka sortarazi hezkuntzaren kalitatearen inguruan.

Era berean, kultur arteko irakaskuntzak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko beharra ikusten da, eta euskal hezkuntzaren sistemak horrelako egoera baten aurrean erantzuteko duen definizio falta ere bai; izan ere, sarri portaera kultural desberdinak dituen kolektiboa hezkuntza sisteman sartzeak galdera ugari eragiten ditu.

Immigranteen kolektiboek modu positiboan baloratzen dute hezkuntza sistema eta ez dute arazo berezirik azpimarratzen. Soilik kasuren batean adierazi da zailtasun handiagoa eurek aukeratutako ikastetxean sartzeko.

## **Enplegua**

Aurrez ere adierazi dugu immigranteen gehiengoa dagoela lan egiteko adinean. Populazio horrentzako oinarriko helburu izan arren, lan merkatuan sartzeko orduan hainbat zailtasun aurkitzen dute.

Immigranteek lan merkatuan sartzeko aurre egin behar izate dioten lehenengo arazoa irregulartasun administratiboa izaten da. Geroz eta pertsona gehiagorengan du arazo horrek eragina, eta geroz eta gehiagotan, pertsona horien aukera bakarra Gizarte Zerbitzuetara jotzea izaten da.

Eibar inguruan, gizonezkoentzako ekonomia murgilduan sartzea zailagoa da, nahiz eta onartzen dituzten hainbat egoera, besteak beste, soldata baxuagoak, ezarritako ordutegia luzatzea... Aldiz, emakumeen kasuan, batez ere latinoamerikarren kasuan, lan/erresidentzia baimenik izan ez arren, etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko lanak egin ditzakete, merkatu horretan baita nagusi ekonomia murgildua.

Emakume latinoamerikarrek ostalaritzan ere aurkitzen dute lana, baina ez hainbeste. Magrebeko emakumeak oso kopuru txikian hurbiltzen dira lan merkatura, eta egitekotan euren bizitzetako epe mugatuan egiten dute. Edozein kasutan, lana aurkitzeko aukeretan kultura desberdintasunaren ondorio negatiboak nabarmentzen dira (zapia erabiltzea).

Gizonezko immigranteek, batik bat, industria-peoi bezala, eraikuntzan edo garbiketa lana egiten dute.

Immigranteek bertako bizilagunek baino lan baldintza kaxkarragoak jasaten dituzte, euren egoera prekarioarengatik eta bizi-irauteko baliabideak lortzeko duten behararengatik, eta kasu askotan, jaioterrian utzitako familia laguntzeagatik. Batez ere etxeko lanetan diharduten emakumeek jasaten dituzte egoerarik gogorrenak, isolamendua eta euren lan eskubideak aldarrikatu ezina jasaten baitute.

### **Etxebizitza**

Herriko populazio osoaren arazoa da, bai atzerritarrarena bai bertokoarena. Eta immigranteen kasuan, gainera, arazo gehigarriak ditu: etxebizitza eskasari gehitu behar zaio etxebizitzaren jabeek ez dutela nahi izaten euren etxea etorkinei<sup>2</sup> alokatzea, edo alokairua garestiagoa izaten dela kolektibo horrentzako.

Horren ondorioz pilaketa arazoak areagotu egiten dira (batzuetan egoera zailtan lagun-ezagunek lagatako etxeak, beste batzuetan negozio antolatu bezala, immigranteek eurek eginda ere bai), eta bizitzeko egoera kaxkarrean dauden etxebizitzetan bizi izaten dira.

### **Osasuna**

Osasun arloa da immigranteen artean estimu gehien duen zerbitzua. Ez dira arazo espezifikorik antzematen jasotako zerbitzuaren inguruan, profesionalek modu egokian zaintzen dituzte herritarrak eta sortu daitezkeen hizkuntza arazoak erraz konpontzen dira, herrian urte gehiago daramaten herrikideek lagunduta joaten direnean osasun-zerbitzuetara.

Hala ere, arazoak ematen dira buruko gaitzei dagokienean: isolamendu egoerak, estresa, gutxiesteak, erauztea... horren ondorioz ohiko bihurtu dira depresioarekin lotutako gaitzak (ez da iritsi “Ulyses-en gaitza” bezala identifikatzera, baina patologia horietan eragina geroz eta nabarmenagoa da).

### **Gizartekintza**

Aurrez aipatu dugu immigranteek urritasun egoera nabarmenago jasaten dutela, eta zenbait kasutan, laguntza behar izaten dute gizarte hartzaileara egokitzeko, sarri familia egoera zailak bizi dituzte-eta.

---

<sup>2</sup> Baita pentsioen kasuan ere (legeztatu gabekoak)

Alde batetik, erregularizaziorako baldintzen ondorioz Gizartekintzara eramaten dituzte, beste egoera batean zerbitzu horietara joango ez liratekeen pertsonak. Era berean, bertoko populazioaren artean “autoktonoen kaltera kolektibo horri gehiegizko laguntasuna ematen zaion” sentazioa areagotzen ari da. Gainera, Gizartekintza zerbitzuak gainezka egiten du, hartu behar dituzten pertsona kopuruarengatik ez hainbeste, baizik eta populazio horren ezaugarri espezifikoengatik; izan ere, hizkuntza eta kultura azaroei egin behar izaten diete aurre.

Horregatik, Gizartekintzako erabiltzaileetatik komunitatez kanpoko herrialdeetatik ailegatutakoak Eibarko populazioaren %7,5 dira, eta populazio orokorraren %2,4 soilik. Hau da, immigranteek jotzen du gehienbat Gizartekintzara.

Nabarmenezkoa da Gizartekintzan hartzen dituzten pertsonak ez direla bertara joaten “kolektiboetako” kide gisa, baizik eta euren familia egoera edo egoera pertsonalarengatik, eta prestazioetarako dauden irizpideak berberak dira Euskal Herrian bizi diren pertsona guztientzako, nazionalitatea kontutan izan gabe.

Pertsonak ez dute emigratzen giza prestazioetatik bizitzeko, eta horregatik enplegu edo gizarteratze zerbitzuetako arduradunek nabarmentzen dute immigranteek gainerako populazioak baino lanpostu gutxiago errefusatzeko dituztela; hala ere, lan merkatura sarbidea erraztu ezean, Gizartekintzaren kronifikazioaren inguruko hainbat galdera planteatzen dira.

### **Parte hartze Soziala**

Immigranteen parte hartze soziala txikia da hainbat arrazoiengatik, besteak beste, denbora falta, baliabide ekonomikoak, hizkuntza –gaztelaniaz komunikatzeko erraztasun faltak atzera bota ditzake marokarrak edo gaztelaraz egiten ez duten beste herrialde batzuetako immigranteak, baina euskara ere oztupo izan daiteke, bai marokarrentzat bai latinomarrigarrentzat- edo interesa, diferentzia kulturalengatik edo bizi baldintzengatik aisialdiak ez duelako lehentasunik immigranteentzat.

Hala ere, euren presentzia herrian geroz eta nabarmenagoa da, eremu publikoetan... eta batez ere, gazteenak hasi dira herrian egiten diren ekimenetan integratzen. Horregatik esan daiteke gizarteratze prozesua ematen ari dela, nahiz eta oraindik ahula izan.

Hainbat entitatetik igartzen da integrazio kontzeptua definitzeko zailtasuna, eta zein puntutaraino bultzatu behar den jaioterriko kultura eta ohitura Eibarko kultura eta ohituren aurrean. Oraindik definitu gabeko eremua da, baina tentsioak igartzen hasi dira.

Immigranteen aldetik nabarmentzen da herrian euren partehartzea antolatze beharra, gizarte hartzailearekin kultur trukaketarako guneak eraiki eta elkar ezagutzea erraztuko duten ekimenak bultzatzeko.

Argi dago immigranteek hainbat zailtasun konpartitzen dituztela gizarte hartzailearekin, adibidez, kalitatezko enplegua edo etxebizitza lortzea. Diagnosiak nabarmentzen du gizarte hartzailearen mekanismo edo instrumentuen ezagutza falta, hizkuntza eta aldaketa kulturalaren arazoak, batzuetan bortitzak, eta baita Eibarko gizartearen gutxiestea ere, immigranteen kolektiboa desabantaila posizioan utziz.

Traba horiek gainditzea erraztu beharko litzateke, inongo ekintza espezifikorik behar gabe autonomia maila eta integrazioa eurenganatu dezaten, eta era berean, bizilagun, langile eta herritar bezala euren egoeraren normalizazioa lor dadin.

Guzti hori lortu ahal izateko aldeko kontestu batetik abiatzen da: herrian bizi diren atzerritarren kopurua txikia da, eta gizarte hartzaileak oro har jarrera ona du kolektibo horrekiko; gehiengoak ontzat edo oso ontzat ematen dituen harremanak dituzte.

Hala ere, antzeman daiteke populazioaren zati bat hasi dela euren bizilagun berriei mesfindantzaz begiratzen; euren komunitateetan ixten direla uste dute eta bertokoen kultura eta ohituretatik aldentuta daudela. Horrez gainera, immigrazioa eta delinkuentziaren arteko lotura egitearen arriskua ere agerian da, eta kolektibo batzuek uste dute beharrezkoa dela immigrazio musulmana eta ez musulmanaren arteko bereizketa egitea immigranteen harrera erraztu aldera.

Nazioarteko egoera zaila da gaur egun; diferentea denak beldurra ematen du, eta interbentzio publikoa beharrezkoa da gizarte kohesionatuagoa lortu ahal izateko, eta bide batez hainbat Komunitate eta herritan gertatutako konfliktoak ekidin behar dira.

Diagnosi honen helburua herri-administrazioaren eta gizartearen erantzuna artikulatzeko gakoa eskaintzea da, Eibarren bizi diren pertsona guztien beharretara egokitu dadin, nazionalitateak alde batera utzita.